

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-6104

8/2004 LEGEA, azaroaren 12ko, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriakoa.

Eusko Legebiltzarrak lege hau onartu duela jakinazten zaie EAEko herritar guztiei,

AZAROAREN 12KO 8/2004 LEGEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INDUSTRIAKOA

ZIOEN AZALPENA

I

Legezko erreserbaren eta legezkotasunaren itzalpean –Konstituzioko printzipioak baitira–, Autonomia Erkidego honetan, legezko iturri izango da lege hau, eta haren arabera arautuko da industria-jarduera, haren arabera mugatuko, mugarik behar badu, industrian jarduteko modua –orokorrean, industriak jartzeko eta industrian aritzeko askatasuna baita nagusi–, haren arabera arautuko produktuen zirkulazio-askatasunerako mugak, eta, bereziki, haren arabera erabakiko aginte publikoen esku hartzeko araubidea, bai ezer betearazi behar denean rako bai ezer arautu behar denerako.

Esparru horretan ematen zaio arau hau Euskal Autonomia Erkidegoari. Industria-jarduerarekin zerikusia duten alderdi guztiak daude jasota arau honetan, bai ekonomia-jarduera hori egin eta sustatzeari dagokionez bai industriako instalazio, tresna, ekipo eta produktuen segurtasuna eta kalitatea bermatzeko beharrezko eska-kizunak eta baldintzak jartzeari dagokionez, eta, horretarako, jarduera horrek berez arriskurik ere badakarren, herritarren babeserako esparrua ere ezarri da.

II

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko gizartea, ekonomia eta teknologia ez dira, jada, garai batekoak, eta, horrenbestez, arauak ere eguneratu eta aldatu beharra zegoen, derrigor. Hona hemen, besteak beste, zerk ekarri duen egoera berri hori:

1.– Euskal industria ez da geldirik egon, eta, bila-kaera horretan, beste jarduera batzuei heldu die. Orain, prozesu ekonomikoek eta produkziokoek beste oinarri batzuk dituzte, hau da, teknologia berriak erabiltzen dira, prozesuak beti berritzuz doaz eta enpresak kudeatzeko sistemak aldatzen ari dira.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-6104

LEY 8/2004, de 12 de noviembre, de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley,

LEY 8/2004, DE 12 DE NOVIEMBRE, DE INDUSTRIA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

La presente ley, de acuerdo con los principios constitucionales de reserva de ley y de legalidad, es la fuente por la que en esta Comunidad Autónoma se ordena la actividad industrial, se definen y regulan, dentro del marco general de libertad de establecimiento y de libertad de ejercicio de la actividad industrial, las posibles restricciones a su libre ejercicio, así como las limitaciones a la libertad de circulación de productos, y, especialmente, se establece el régimen de intervención de los poderes públicos, tanto en los aspectos ejecutivos como normativos.

Dentro de este marco, se dota a la Comunidad Autónoma de Euskadi de una norma donde se regulan todos aquellos aspectos relacionados con la actividad industrial, tanto desde el punto de vista del ejercicio y promoción de esta actividad económica como del establecimiento de los requisitos y condiciones que garanticen la seguridad y la calidad de las instalaciones, aparatos, equipos y productos industriales, y se establece el marco de protección de los ciudadanos contra los diversos riesgos inherentes al ejercicio de dicha actividad.

II

La actualización y modificación del vigente marco normativo viene impuesta directamente por la nueva realidad social, económica y tecnológica en la que en este momento se encuentra la Comunidad Autónoma. Esta realidad viene determinada por factores tales como:

1.– Evolución del tejido industrial vasco hacia la implantación de nuevas actividades industriales, en las que los procesos económicos y productivos se basan en la utilización de nuevas tecnologías, en la innovación de procesos y en la modificación de los sistemas de gestión empresarial.

2.- Egunetik egunera, informazioaren eta ezagutza-ren gizarte garatuz eta ezarriz doa, eta aginte publikoek ere badute zeregin ibilbide horretan, haien betebeharra baita gizarte berri horri ateak zabaltzeko azpiegitura sortzea eta bultzatzea, eta haien betebeharra, era berean, teknologia horretara eta horren edukietara iristeko aukera herritar guztiak baldintza berberetan izateko beharrezko tresnak sortzea.

3.- Produktu batzuk fabrikatzeko arau teknikoak Autonomia Erkidegoa baino goragotik datozkigu aginduta, eta beren kontrol eta berme sistema bereziak dakkartzate, CE markatzailea esate baterako. Industria-arloa bera ere bere burua arautzeko geroz eta sistema gehiago ari da sortzen, arau pribatuak ezarriz, eta, horrenbestez, Administrazioaren esku-hartzea behera doa, bai araugintzan bai zeregin betearazlean.

4.- Baino, aldi berean, teknikaren aldetik espezializatzeko beharra dago, eta eskakizun teknologikoei Administrazioak segituan erantzun behar die, derrigor. Horregatik, orain arte Administrazioarenak ziren hainbat eginkizun oinarri pribatuko beste eragile batzuk ari dira beren gain hartzen geroz eta gehiago, eta erabat sektore batuetan.

Era berean, bateko eta besteko interesak uztartu beharra dago, hau da, industriako jarduera, instalazio, ekipamiento, tresna eta produktuen titular eta erabiltzaileen interesak industria-jarduerako eragile laguntzaileen interesekin uztartu behar dira, baterik, eta herritarren interes orokorrarekin, bestetik. Horretarako, betiere kontuan izan behar dira ahalik eta gutxiengos esku hartzearen eta industriaren liberalizazioaren printzipioak, ideia horiek izan dira-eta industriaren arloan orain arte egindako arautze-lanen gidari.

III

Eskumenak Konstituzioan nola zedarritura dauden begiratuz gero, oinarrizko gai modura ageri dira, bestek beste, industria-arloak antolatzea eta industriako prozesuak edo fabrikazio-prozesuak arautzea, eta, zehatzago, industriako segurtasunaren azpigaian industriako instalazio eta establezimenduen segurtasunarekin eta haitan egindako produktuen segurtasunarekin zerikusia duten jarduerak.

Konstituzio Auzitegiak, gai honen inguruko eskumenak zedarritzean, abiaburu hau izan du: industriako segurtasuna bermatu beharra dela-eta, Estatuak du onartua gaia arautzeko ahalmena, eta, horrekin batera, industria-gaietan eskumen esklusiboa duten autonomia-erkidegoek xedapenak sortzeko ahalmena izango dute, Estatuaren xedapenen osagarri, baldin eta Estatuaren legeetako aginduei balioa galarazten ez badiete edo lege horien helburuak lortzea eragozten ez badute. Gaia arautzeko ahalmena, beraz, Estatuak eta autonomia-erkidego batzuek dute aldi berean, eta Estatuko le-

2.- El progresivo desarrollo e implantación de la sociedad de la información y del conocimiento, que exige de los poderes públicos no sólo crear y promover la infraestructura técnica que posibilite la misma, sino también crear los instrumentos necesarios para el acceso de todos los ciudadanos, en condiciones de igualdad, a esta tecnología y a sus contenidos.

3.- La existencia de normas técnicas para la fabricación de productos que nos vienen impuestas desde ámbitos supra-autonómicos, con sus propios sistemas de control y garantía, tales como el marcado CE, así como la generalización de los sistemas de autorregulación del propio sector industrial, a través de la implantación de normas de naturaleza privada, de tal manera que se reduce progresivamente la intervención normativa y ejecutiva de la Administración.

4.- Al mismo tiempo, la necesidad de especialización técnica y la obligada celeridad en la respuesta administrativa a las demandas tecnológicas están incrementando, y en algunos sectores generalizando, la intervención de agentes de base privada para el ejercicio de funciones tradicionalmente administrativas.

Así mismo, resulta imprescindible armonizar los intereses de los titulares y usuarios de actividades, instalaciones, equipos, aparatos y productos industriales con los intereses de los agentes colaboradores de la actividad industrial, así como con el interés general de los ciudadanos, teniendo en cuenta siempre los principios de intervención mínima y de liberalización industrial, que vienen inspirando las distintas regulaciones existentes en materia de industria.

III

Desde el punto de vista de la delimitación constitucional de competencias, dentro del núcleo fundamental de la materia de industria se incluyen, entre otras, las actividades destinadas a la ordenación de sectores industriales y a la regulación de los procesos industriales o de fabricación, y, más específicamente, en la submateria de seguridad industrial, las actividades relacionadas con la seguridad de las instalaciones y establecimientos industriales y de los productos elaborados en los mismos.

La delimitación competencial en la materia, en los términos en los que ha sido fijada por el Tribunal Constitucional, parte del reconocimiento al Estado de una potestad normativa –por razones de seguridad industrial– y del reconocimiento de la potestad que las comunidades autónomas con competencia exclusiva en materia de industria tienen para dictar disposiciones complementarias de las del Estado, siempre que no desvirtúen los mandatos o impidan alcanzar los fines perseguidos por la legislación estatal. Se trata, pues, de una concurrencia de potestades normativas, estatal y auto-

gegileak, egoera hori antolatu nahi badu, errespetatu egin behar du eskumenaren esklusibotasuna, kasuan ka-suko estatutuan jartzen duenaren arabera.

Hain zuzen ere, Euskal Herrirako Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Orgánikoaren 10.30 artikuluak honela dio Autonomia Erkidego honetaz: «Konpetentzia esklusiboa du industrial, segurtasun, garrantzi militar eta osasun arrazoiengatik eta lege berezipean diratekeen industrien ezarkuntza, zabalpen eta lekualdatzea izan ezik, ez eta funtzio hauetarako legegintza espezifika behar duten guztiak ere, eta atzerritar teknologiaren transferentzia egiteko aldez aurretiko kontratuak behar dituztenak ere ez. Industria-sektoreen berrestrukturaketa, Estatuak ezarriko dituen planak aurrera eraman eta betetzea Euskal Herriari dagokio».

Estatua hartzen bada esparru modura, lege honen hurbileneko aurrekariak Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legean daude. Eduki askotan, lege hori oinarritzko da izatez, hala jartzen baitu azken xedapen barkeran (Konstituzioko 149. artikuluko 1. punto 1 eta 13. gaietan dauka zerikusia xedapen horrek).

Oinarriz ere, lege honek badu zerikusirik aipatu berri den horrekin. Han oinarrizko modura arauturik dauden printzipioak betetzea, han autonomia-erkidegoei emandako ahalak eta edukiak garatu beharra, eta, bestalde, jarduera ekonomikoa koordinatzea, derrigor: horiexek oinarrizko. Koordinazio hori, berriz, hartu-emanetarako baliabideak eta sistemak ezartzear da, hartara batak besteari informazioa eman ahal diezaion, oinarrizko gauzeten teknika homogeneoa izan dadin, eta administracio bat eta bestea –bakoitza bere eskumenen bidetik– elkarrekin ari daitezzen, horrela zatikako ekin-tza oro sistemaren osotasunean txertaturik geratzea lortzeko.

Azaldutako konstituzio-jurisprudentziaren arabera, Industriako Legea oinarrizkoia izateak ez du esan nahi, inola ere ez, araugintza autonomikoak ezin duela autonomia-erkidegoaren lurralerako araubide bereizi eta propioa eraiki, oinarrizko modura sailkatutako mugen barruan. Pentsa liteke kontraesanen bat ez ote dagoen oinarrizkoia izate horren eta araugintza autonomikoaren artean, baina itxurazko kontraesan hori gainditurik geratuko da kontuan hartzen bada autonomia-erkidegoak direla Estatuko legearen jomuga; autonomia-erkidego horiek, araugintzarako duten eskumenaren barruan, es-kakizun eta baldintza osagarriak jartzeaz gainera, zuzenbide-esparru substantiboa eta propioa ere osa dezakete, industria arau-gaitzat harturik.

IV

Egituraz, legeak zazpi kapitulu ditu, berrogeita bi artikulu, hiru xedapen gehigarri, aldi baterako hiru eta bi azken xedapen.

nómica, que puede ordenar el legislador estatal respetando, en todo caso, el carácter exclusivo de la competencia en la materia, de acuerdo con lo establecido en la correspondiente norma estatutaria.

En efecto, según lo establecido en el artículo 10.30 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, esta Comunidad Autónoma «tiene competencia exclusiva en materia de industria, con exclusión de la instalación, ampliación y traslado de industrias sujetas a normas especiales por razones de seguridad, interés militar y sanitario y aquellas que precisen de legislación específica para estas funciones, y las que requieran de contratos previos de transferencia de tecnología extranjera. En la reestructuración de sectores industriales, corresponde al País Vasco el desarrollo y ejecución de los planes establecidos por el Estado».

En el ámbito estatal, los antecedentes inmediatos de la presente ley se encuentran en la Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria, la cual, en muchos de sus contenidos, tiene el carácter de básica, de acuerdo con lo establecido en su disposición final única, en relación con el artículo 149.1.1.^a y 13.^a de la Constitución.

La presente ley se fundamenta en el respeto a los principios que, con el carácter de básicos, se regulan en la referida ley, en la necesidad de desarrollar las potestades y contenidos que la misma atribuye a las comunidades autónomas, así como en la obligada coordinación de la actividad económica, que debe ser entendida como la fijación de medios y sistemas de relación que hagan posible la información recíproca, la homogeneidad técnica de los aspectos básicos y la acción conjunta de las diferentes administraciones en el ejercicio de sus respectivas competencias, de tal modo que se logre la integración de actos parciales en la globalidad del sistema.

De acuerdo con la jurisprudencia constitucional expuesta, el carácter básico de la Ley de Industria en ningún caso impide que la regulación autonómica establezca, dentro de los límites fijados con el rango de básicos, un régimen diferenciado y propio para el ámbito territorial de la propia comunidad autónoma. En este sentido, la aparente contradicción entre ese carácter básico y la regulación autonómica se resuelve considerando que los destinatarios de la ley estatal son las comunidades autónomas, que en el ejercicio de su competencia normativa pueden establecer no únicamente requisitos y condiciones complementarias, sino también un marco jurídico sustantivo y propio regulador de la materia de industria.

IV

La ley se estructura en siete capítulos, cuarenta y dos artículos, tres disposiciones adicionales, tres transitorias y dos disposiciones finales.

I. kapituluan xedea, aplikazio-eremua, eskumen-mugaketa eta industrien erantzukizun-araubidea datoz definiturik. Industriako erantzukizunerako araubidearen barruan, eta industriako jarduerak edo instalazioen erabilera sor ditzaketen kalteak gogoan harturik, industriako jardueren eta instalazioen titularren erantzukizun orokorra dator zehazturik, erantzukizun zibileko araubide orokorraren arabera. Segurtasun-beharra duten produktu, tresna edo ekipoak fabrikatu, saldu edo importatzen dituztenen erantzukizun orokorra ere baderator zehazturik, eta, jarraian, esparru honetan dihartutenean eragileen erantzukizuna zehazten da beraz.

II. kapituluak «Industria-jarduerak» du izena. Araubide orokor modura, industrian jarduteko askatasuna eta industrietako produktuak salerosteko askatasuna dakin jasota, baina produktu horiek segurtasuneko eska-kizun eta baldintza teknikoetako arauak betar behar dituzte, kontsumitzaleen eta erabiltzaileen interesak bermatze aldera. Industrien Erregistroa ere kapitulu honetan dago jasota; industrian aritzeko, nahitaezkoa da hor izena ematea, horixe da muga bakarra.

III. kapituluan, berriz, industriako segurtasunean aplikatzeko araubide juridikoa dator zehazturik, ahalik eta gutxien esku hartu beharria printzipiotzat har-tuta; horretarako, industriako segurtasuna zaindu beharrean dauden instalazioak baimentzeko eta kontrolatzeko prozesuetan Administrazioari laguntzen dioten erakundeek zein lege-esparrutan lan egin behar duten zehazten du. Hain zuzen ere, bi gauza garatzen dira: eragile horiek zein lege-esparrutan lan egin behar duten, eta, eragile horiek ahalmen batzuk jasoko dituztenez, herritarrek ahalmen horien aurrean izango dituzten babes eta berme tresnak.

Beste alde batetik, industriako jardueren edo instalazioen titularrek Administrazioari segurtasuneko eska-kizun eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko zein sistema erabili behar duten ere arautzen da. Era berean, halako jarduerek edo halako instalazioen funtzionamenduak dakartzaten arriskuei aurre egiteko eta haientzatik babesteko lanean Administrazioak eta agintari publikoek zertan noiz esku har dezaketen eta zein ahalmen izango dituzten ere mugatzen da.

IV. kapituluan, kalitatearen eta industriako segur-tasunaren artean legez zein muga dagoen dator zehazturik. Industriako kalitate-kontuetan Herri Administrazioak zein lan-ildori jarraitu behar dion ere jasotzen da, ea, hartara, oinarri autonomikoko erakundeak sortzen diren bai normalizaziorako bai egiaztapenatarako eta ziurtapenatarako.

«Industria sustatzea» da V. kapitulua. Herri-administracio eskudunek industria-jarduera sustatzeko garatzen dituzten eduki ekonomikoko plan eta programek betar behar dituzten gutxieneko oinarri eta helburuak

El Capítulo I define el objeto y el ámbito de aplicación, así como la delimitación competencial y el régimen de responsabilidad industrial. Dentro del régimen de responsabilidad industrial, se establece la responsabilidad general de los titulares de actividades e instalaciones industriales por los daños derivados de la referida actividad o de la utilización de instalaciones industriales, de acuerdo con el régimen general de responsabilidad civil. Así mismo, se establece, con carácter general, la responsabilidad de los fabricantes, vendedores o importadores de productos, aparatos o equipos sujetos a seguridad, y se delimita de forma específica la responsabilidad de los agentes que intervienen en este ámbito.

En el Capítulo II, bajo el título «Actividades industriales», se recoge el régimen general del libre ejercicio de actividades industriales, así como la libertad de comercialización de los productos industriales que cumplen las normas reguladoras de los requisitos y condiciones técnicas de seguridad, con el fin de garantizar los intereses de los consumidores y usuarios. Así mismo, en este Capítulo se contempla el Registro de Establecimientos Industriales, cuya inscripción, de carácter obligatorio, supone la única limitación que se establece para el ejercicio de actividades industriales.

El Capítulo III establece el régimen jurídico aplicable a la seguridad industrial, bajo el principio de mínima intervención, determinando el marco legal en el que se deberá desarrollar la actuación de todas aquellas entidades que coadyuven o colaboren con la Administración en los procesos de autorización y control de las instalaciones sometidas a seguridad industrial. A este respecto, se desarrolla el marco jurídico en el que este tipo de agentes deben ejercer su actividad y los instrumentos de protección y garantía de los ciudadanos en relación con las facultades que a dichos agentes se atribuyen.

Por otra parte, se regula el sistema por el que los titulares de actividades o instalaciones industriales deberán acreditar ante la Administración el cumplimiento de los requisitos y condiciones de seguridad de las mismas, y se delimitan las facultades de intervención de la Administración y las potestades públicas en los ámbitos de la prevención y protección contra riesgos derivados de su ejercicio o funcionamiento.

En el Capítulo IV se precisa la delimitación legal entre los conceptos de calidad y seguridad industrial, definiéndose las líneas de actuación de la Administración Pública en el campo de la calidad industrial, al objeto de promover la existencia de entidades, tanto de normalización como de acreditación y certificación, de base autonómica.

En el Capítulo V, «Promoción industrial», se establecen las bases y objetivos mínimos a los que deberán ajustarse los planes y programas de contenido económico que se desarrolle por las Administraciones Pú-

daude hor jasota. Esku-hartze hori lau arlo nagusiren inguru dago egituraturik: industria sustatzea, informazioaren eta ezagutzaren gizartea, teknologia eta berrikuntza, eta nazioarteratzea.

VI. kapituluau, industria-jardueren fase guztietan parte hartzen duten eragileen erantzukizuna dator arauturik. Aldi berean, zehatzeko araubidea zehazteaz gain, arau-hausteak tipifikatu, erantzuleak nor diren zehaztu, eta zehapen-sistema eta zehapen horiek nola erabaki ere zehazten da.

Alde horretatik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean zehazturiko printzipioak zorrotz baino zorrotzago bete nahian, zehatzeko araubideari printzipo hauek jartzen zaizkio oinarritzat: tipo-sistema, errunduntasuna eta erantzukizuna, heinekotasuna eta legezkotasuna. Arau-hauste eta zehapen sistema objektibo baten bidez, bazterrean uzten da tipoa analogiaz aplikatzeko aukera, eta, horrela, segurtasun juridikoaren aldera egiten da nabarmen, zehapenak jartzeko orduan edo halako beste neurriren bat hartzeko orduan ez dadin subjektibotasunik edo arbitriotasunik izan.

Beste alde batetik, batzuen eta besteen eskubideak bateratzeko ahalegina egin da: erantzulearen eskubideak, haren jokaerak kalte egindakoen interesak eta industriako instalazioen segurtasuna bera. Eta, aldi berean, zehapenak zehatz-zehatz mailakatuz, eta dagozkien inguruabarretan oinarritutik zehatzuz, zehapenak objektiboak izatea nahi da, eta printzipoen artean aipatu den neurriz jokatu behar hori (heinekotasuna) bete nahi da.

VII. kapituluak, berriz, Administrazioak esku hartzeko gehienez ere zein gaitasun duen azaltzen eta mugatzen du. Esku-hartze hori, kasu honetan, interesatua industriako diziplinara itzularazteko eta industriaren eta produktuen segurtasuna benetan lortzeko beharrezko neurriak harrarazteko izango da.

Arau-hausteetarako eta zehapenetarako sistema orokor bat eratu da, eta, orokorrean, industriarako eta meatzaritzarako balio du. Baino, hala ere, lehen xedapen gehigarrian, meatzaritzaren berezko espezialitateak mugatzeko beharra zegoela pentsatu da. Izan ere, meatzaritzako arau-hausteetan Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legeko zehatzeko araubidea aplikatzeak gaur egun segurtasun juridikorik eza dakar, eta egoera hori legez argitzea da asmoa. Aplikazio hori Meatzeetako uztailaren 21eko 22/1973 Legean ezarrita dagoen arau-haustean tipifikaziotik dator, Konstituzio aurreko lege hori indarrean baitago.

Azkenik, azken xedapenetako bigarrena dela-eta, industriako eskumenak dituen organoak arautu ahal izango ditu, agindu bidez, eskakizun eta baldintza teknikoak –huts-hutsik teknikoak direnak–, hartarako gaitasuna eman baitzaio. Eta gaitasun hori eman zaio, pro-

blicas competentes en relación con el fomento de la actividad industrial. Esta intervención se estructura en cuatro grandes sectores: promoción industrial, sociedad de la información y del conocimiento, tecnología e innovación, e internacionalización.

El Capítulo VI regula la responsabilidad de todos los agentes intervinientes en las distintas fases de las actividades industriales, y establece, a su vez, el correspondiente régimen sancionador, la tipificación de las infracciones y los sujetos responsables, así como el régimen de sanciones y su determinación.

A este respecto, y desde el más estricto respeto a los principios enunciados por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Pùblicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se establece un régimen sancionador basado en los principios de tipicidad, culpabilidad y responsabilidad, proporcionalidad y legalidad. A través de la objetivación del sistema de infracciones y sanciones, se excluye la aplicación analógica de los tipos, y se preserva, de este modo, la seguridad jurídica que imposibilita la subjetividad y arbitrariedad en la imposición de sanciones o de otro tipo de medidas de este carácter.

Por otra parte, se pretende coherenciar los derechos del responsable con los intereses de las personas que se han visto afectadas con su conducta y con la propia seguridad de las instalaciones industriales. Al mismo tiempo, con una precisa graduación de las sanciones y su determinación a partir de las circunstancias que las delimitan, se pretende objetivar la sanción y dar cumplimiento al referido principio de proporcionalidad.

El Capítulo VII prevé y delimita las máximas facultades de intervención administrativa, tendentes, en este caso, a compelir al interesado a restablecer la disciplina industrial y adoptar las medidas necesarias para que la seguridad industrial y de productos sea un objetivo cumplido.

Se ha establecido un régimen general de infracciones y sanciones que es aplicable, con carácter general, tanto a la materia de industria como a la de minas. No obstante, en la disposición adicional primera, se ha considerado necesario delimitar las especialidades propias de la actividad minera. El objetivo es clarificar legalmente la actual situación de inseguridad jurídica que supone la aplicación del régimen sancionador de la Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria, a las infracciones en materia de minas, aplicación derivada de la tipificación de las infracciones que se establece en la preconstitucional y vigente Ley 22/1973, de 21 de julio, de Minas.

Por último, en relación con la disposición final segunda se debe resaltar la habilitación al órgano competente en materia de industria para que, mediante orden, se regulen los requisitos y condiciones de carácter estrictamente técnico. Esta habilitación responde a la

duktu-mota edo instalazio-mota bakoitzera arau teknikoak izugarri konplexuak direlako teknikoki eta oso zehatzak izan behar dutelako. Eta arautze-figura hori erabili da, hain zuzen, zientzia eta teknologia etengabe ari direlako eraldatzen, eta, arau teknikoek ere derrigor haietara egokitzeko modukoak izan behar duteenez, arauak sortzeko eta aldatzeko behar bezain prozedura azkar eta malguak erabili behar direlako.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Xedea eta aplikazio-eremuia.

1.— Hauxe da lege honen xedea: Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan, industrian jarduteko eta industria sustatzeko arauen esparrua zehaztea eta, industriako segurtasuna eta kalitatea dela-eta, Administrazioak esku hartzeko jarraibideak eta industriako instalazioak, tresnak, ekipoak, prozesuak eta produktuak kontrolatzeko jarraibideak zehaztea.

2.— Horixe da xedea, eta helburuak, berriz, beste hauek:

- a) Enpresa-askatasunaren eta egoitza jartzeko askatasunaren itzalpean, industrian jardutea babestea.
- b) Industrien segurtasuna eta kalitatea sustatzea eta kontrolatzea.
- c) Europar Batasuneko Zuzenbideak eta nazioarteko hitzarmen eta itunek zehazturiko esparruan, industriako produktuen joan-etorri askea babestea.
- d) Industriako erantzukizun-araubidea zehaztea.
- e) Industria-jarduera, teknologia eta berrikuntza sustatzea.
- f) Industria-jardueraren plangintza estrategikoa.

3.— Euskal Autonomia Erkidegoan dauden industria, tresna, ekipo, producto edo instalazio guztiak (baita industria-segurtasuneko instalazio energetikoak ere) bete behar dituzte arau honetako xedapenak, eta berdin dio zertarako diren, nola erabiltzen diren edo non dauden.

4.— Eskumena Autonomia Erkidego honen eskuetan baldin badago, meatokiak eta gainerako baliabide geologikoak ikertzeko, aprobetxatzeko eta etekina ateratzeko lanek ere, beren lege berezietan jasota ez duten edo zertan, lege hau bete beharko dute, eta berdin dio baliabide horiek zein jatorri duten edo zein egoera fisikotan dauden.

extraordinaria complejidad técnica y al grado de detalle que requieren las reglamentaciones técnicas reguladoras de cada tipo de producto o de instalación. Así mismo, la opción por esta figura reglamentaria se fundamenta en la necesidad de utilizar procedimientos de elaboración y de modificación lo suficientemente rápidos y flexibles, de tal forma que se pueda adaptar la normativa técnica a una ciencia y tecnología en continua evolución.

CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto y ámbito de aplicación.

1.— La presente ley tiene por objeto establecer, en el ámbito de competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el marco normativo regulador del ejercicio de la actividad y fomento industrial, así como determinar, en el ámbito de la seguridad y calidad industrial, las directrices para la intervención y control administrativo de las instalaciones, aparatos, equipos, procesos y productos industriales.

2.— De acuerdo con el referido objeto son fines de la presente ley:

- a) La protección del ejercicio de actividades industriales, dentro del marco de libertad de empresa y de establecimiento.
- b) La promoción y control de la seguridad y calidad industrial.
- c) La protección de la libre circulación de productos industriales, dentro del marco definido por el Derecho Comunitario y por los tratados y convenios internacionales.
- d) La determinación del régimen de responsabilidad industrial.
- e) La promoción y fomento de la actividad industrial, de la tecnología y de la innovación.
- f) La planificación estratégica de la actividad industrial.

3.— Las disposiciones contenidas en la presente norma son de aplicación a todos aquellos establecimientos, aparatos, equipos, productos o instalaciones, incluidas las instalaciones energéticas de seguridad industrial, radicados en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cualquiera que sea su uso, utilización o ubicación.

4.— Se rigen por la presente ley, en todo lo no previsto en su legislación específica, las actividades de investigación, aprovechamiento y beneficio de los yacimientos minerales y demás recursos geológicos, cualquiera que fuere su origen y estado físico, siempre que se trate de competencias asumidas por esta Comunidad Autónoma.

2. artikulua.— Arauak garatzea.

1.— Industria-gaietan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio halako aplikazio-eremu jakin batean halako arau jakin bat nahitaezkoa dela deklaratzea edo erregulazio berezi bat zehaztea, baldin eta premia hori interes publikoak babestu beharrak badakar eta interes horietako eskumena berari badagokio, edo nazioarteko akordioren batek agindurik, akordio hori aplikatzea berre eskuetan badago.

2.— Lege honetako gaietan, arauen betearazte edo transposiziorik egin beharrik baldin badago, Autonomia Erkidego honetako organo eskudunek egingo dute, baldin eta dena delako gaian eskumena berari badagokio.

3.— Eta, Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legean erabakitakoaren arabera, Estatuko arauetan jasotakoez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoak beste es-kakizun osagarri batzuk ere sar ditzake, edo arau autonomiko bat onartu, baina, horretarako, osotasunean, Estatuko arau baliokidearen aldean segurtasun-maila handiagoa ekarri behar du.

3. artikulua.— Industriako erantzukizunetarako araubidea.

1.— Industrian jarduteak edo industriako instalazioak, tresnak, ekiroak edo produktuak erabiltzeak edo haien funtzionamenduak inolako kalterik eragiten badu, titularra izango da erantzulea, datozen puntuetan eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauetan jartzen duenak bere hartan dirauela.

2.— Industriako segurtasun-arauen pean dauden produktu, tresna edo ekiroak fabrikatu, saldu edo importatzen dituztenak dira gauza horiek arau teknikoak betetzearen erantzule.

3.— Lege honen pean dauden tresna, ekiro edo instalazioak egiten, erabiltzen, zaintzen edo kontrolatzentz parte hartzen duten pertsona fisiko eta juridikoei dagokienez, beren lanaren edozein fasetan eragiten dituzten kalteen erantzule izango dira pertsona horiek, baita erregelamenduz ezarrita dauden segurtasuneko baldintza eta eskakizun teknikoak betetzearen erantzule ere. Alde horretatik, hona zer erantzukizun dagokion bakoitzari:

a) Egitasmoa edo beste edozein agiri tekniko egiten duenari instalazioa ondo diseinatzea.

b) Azken ikuskatzearen edo obra-zuzendaritzaren ziurtagiria egiten duen teknikari edo pertsonari, obra egitasmoaren araberakoa izatea, obra egitearen zuzendaritzza, beharrezko egiaztatze eta probak egitea, eta azken ziurtagiria.

c) Instalazioaren titulararen edo erabiltzaileari, instalazioa ondo erabilita, zainduta eta mantenduta ego-tea, eta dagokion erregelamendua betetzen dela egiaztatzea.

Artículo 2.— Desarrollo normativo.

1.— En materia de industria, corresponde a la Comunidad Autónoma de Euskadi declarar la obligatoriedad de una norma en un determinado ámbito de aplicación o establecer una regulación específica cuando las razones que justifican su necesidad se integren en la protección de intereses públicos cuya competencia le corresponda, o por imperativo de un acuerdo internacional, cuando tenga atribuida su aplicación.

2.— La ejecución o, en su caso, transposición de normas, en las materias objeto de esta ley, se realizará por los órganos competentes de esta Comunidad Autónoma, siempre que se trate de materias cuya competencia le corresponda.

3.— Así mismo, de acuerdo con lo establecido en la Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria, la Comunidad Autónoma de Euskadi podrá introducir requisitos adicionales a los previstos en las correspondientes normas estatales, o aprobar una norma autonómica, siempre que la misma suponga en su conjunto un incremento de los niveles de seguridad en relación con la norma equivalente de ámbito estatal.

Artículo 3.— Régimen de responsabilidad industrial.

1.— De los daños derivados del ejercicio de actividades industriales, así como de la utilización o funcionamiento de las instalaciones, aparatos, equipos o productos industriales, responderá el titular de los mismos, sin perjuicio de lo establecido en los puntos siguientes y en las normas de derecho privado que resulten de aplicación.

2.— Los fabricantes, vendedores o importadores de productos, aparatos o equipos sujetos a seguridad industrial son responsables de que los mismos cumplan la reglamentación técnica establecida.

3.— Las personas físicas o jurídicas que, en relación con los aparatos, equipos o instalaciones sometidos a la presente ley, intervengan en cualquiera de sus fases de ejecución, utilización, conservación y control son responsables de los daños que sean consecuencia de su intervención y del cumplimiento de las condiciones y requisitos técnicos de seguridad reglamentariamente establecidos. A este respecto, en particular, se considerarán responsables:

a) El autor del proyecto o de otro tipo de documentación técnica, de diseñar adecuadamente la instalación.

b) El técnico o persona que emita el certificado de inspección final o de dirección de obra, de la adecuación de la obra al proyecto, de la dirección de la ejecución de la misma, de la realización de las comprobaciones y pruebas necesarias, así como de su certificación final.

c) El titular o, en su caso, usuario de la instalación, de su uso, conservación y mantenimiento adecuado, así como de la acreditación de su cumplimiento reglamentario.

d) Empresa baimendunei, haien esku utzitako instalazioak behar bezala egitea edo mantentzea, eta baime-na emateko jarri zitzazkien baldintzak betetzea.

e) Energia banatzen edo salerosten duten enpresei, energiaz hornitzen dituzten instalazioek, bai martxan jarri aurretik eta bai sakoneko aldaketaren bat egindakoan, egiazaturik izan dezatela erregelamenduz eza-ri-tako segurtasun-baldintzak betetzen dituztela.

f) Lege honetan zehazturik dauden gainerako eragi-le laguntzaileei, habilitazioaren arabera dagozkien eginkizunak erregelamenduan jartzen duen moduan betetzea.

4.– Beharrezkoa gertatzen bada artikulu honetan zehazturiko erantzukizunak eskatzea, lege honetako VI. kapituluan arau-hauste eta zehapenetarako jasotako araubidearen arabera egin beharko da.

II. KAPITULUA INDUSTRIA JARDUERAK

4. artikulua.– Industria-jardueren baimenetarako eta funtzionamendurako araubide orokorra.

1.– Lege honen ondorioetarako, hauek dira industria-jarduerak: industriako produktuak lortzeko, kon-pontzeko, mantenzeko, eraldatzeko edo berriro erabil-tzeko jarduerak, ontziratzea eta paketatzea, eta honda-rak edo azpiproduktuak aprobetxatzea, berreskuratzea eta ezabatzea –eta berdin dio zein baliabide edo proze-su tekniko erabiltzen den–, Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legean jartzen duen moduan.

2.– Industrian jarduteko askatasuna dago, baita industria-jarduerak beste leku batera eramateko eta han-ditzeko ere, non eta ez den bestelakorik agintzen intere-s publikoak eragindako lege baten bidez edo nazioar-teko hitzarmen edo itun bidez.

3.– Aurreko paragrafoan xedaturik dagoenari ezer kendu gabe, industrian jardun nahi izatera, Euskal Au-tonomia Erkidegoko Industrien Erregistroan eman beharko da izena, hurrengo artikuluan jartzen duen mo-duan.

5. artikulua.– Industrien Erregistroa.

1.– Industrian jarduteko, nahitaezkoa da Industrien Erregistroan izena ematea.

2.– Erregistroko izen-estateak Autonomia Erkidego osorako balio du. Batez ere, administradorako lan-tresna bat da, eta informazioa eskuratzeko da, bai indus-triako segurtasunerako beharrezko informazioa, bai industria-jarduerei buruzkoa eta bai jarduera horiekin zerikusia duten zerbitzuei buruzkoa.

d) Las empresas autorizadas, de la correcta ejecución o mantenimiento de las instalaciones que se les enco-mienden, así como del cumplimiento de los requisitos establecidos para ser autorizadas como tales.

e) Las empresas distribuidoras o comercializadoras, de que las instalaciones a las que suministren energía, antes de su puesta en servicio y tras modificaciones sus-tanciales, tengan acreditado el cumplimiento de las con-diciones de seguridad establecidas en la correspon-diente reglamentación.

f) El resto de agentes colaboradores previstos en la presente ley, del cumplimiento reglamentario de las funciones para las que está habilitado.

4.– La responsabilidad a que se refiere este artículo se exigirá, en su caso, conforme al régimen de infrac-ciones y sanciones previsto en el Capítulo VI de la pre-sente ley.

CAPÍTULO II ACTIVIDADES INDUSTRIALES

Artículo 4.– Régimen general de autorización y fun-cionamiento de las actividades industriales.

1.– A los efectos previstos en la presente ley, se con sideran industriales las actividades dirigidas a la obte-nición, reparación, mantenimiento, transformación o reu-tilización de productos industriales y el envasado y em-balaje, así como el aprovechamiento, recuperación y eli-minación de residuos o subproductos, cualquiera que sea la naturaleza de los recursos y procesos técnicos uti-lizados, en los términos establecidos en la Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria.

2.– Se reconoce la libertad de ejercicio de activida-des industriales, incluido su traslado y ampliación, sal-vo que por una ley por razones de interés público o por un tratado o convenio internacional se establezca lo con-trario.

3.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado an-terior, para ejercer actividades de carácter industrial se requerirá la inscripción en el Registro de Establecimien-tos Industriales de la Comunidad Autónoma de Euska-di, en los términos establecidos en el artículo siguiente.

Artículo 5.– Registro de Establecimientos Industriales.

1.– La inscripción en el Registro de Establecimien-tos Industriales es obligatoria para el ejercicio de una determinada actividad industrial.

2.– La inscripción en el registro produce efectos en toda la Comunidad Autónoma. Su función principal es la de ser el instrumento administrativo destinado a dis-poner de la información necesaria para la seguridad in-dustrial, así como sobre las actividades industriales y de servicios relacionados con ellas.

3.- Erregelamenduz ezarritako moduan, Industrien Erregistroan jaso beharko dira, gutxienez, enpresen, industrien eta industria-zerbitzuetarako enpresen eta era-gile laguntzaileen datu orokorrak (lege honetako 14. artikuluan daude zehazturik nor diren eragile horiek).

4.- Era berean, Administrazioak eska ditzake tamaina egiazatzeko beharrezkoak diren datu zehatzak, hal-a nola ekoizteko gaitasuna, energia-kontsumoa, balia-bide materialak eta langileak edo industria-jarduera deskribatzeko beste datu adierazgarri batzuk, kasuan-kasuan isilpekotasuna dela-eta aplikatu beharreko arauak errespetatzu.

5.- Izena emateko prozedura printzipio hauen araberakoa izango da: bizkor ibiltzea, Administrazioa arin ibiltzea eta izena eman behar duten industrieak ahalik eta kosturik txikiena ordaindu behar izatea.

6.- Erregistroa publikoa da. Lege hau garatzeko xedapenetan zehaztuko da erregistrora nola iritsi eta horko datuak nola zabaldu, eta baita industriako sekretu-arauen edo kasuan-kasuan aplikatu beharreko arauen pean diren datuak isilpean bermatzeko beharrezko arauak ere.

6. artikulua.- Industriako produktuak salerostea.

1.- Industriako tresnak, ekipoak edo produktuak salerosteko askatasuna dago, eta egiazapenetatik edo adostasun-adierazpenetatik datozenak izango dira eska-kizun edo muga bakarrak, halakorik egin beharra badarak arauen batean.

2.- Industria-produktuek arauzko segurtasun-bal-dintzak betetzen ote dituzten laginketa bidez egiazatzeko, industriako eskumenak dituen sailak hainbat plan eta kanpaina egingo du.

3.- Ikusten baldin bada halako industria-produktu jakin batek ez dituela arauzko segurtasun-baldintzak betetzen, akatsak zuzentzeko aginduko da, eta horretarako epea ere zehaztuko da. Eta, horretaz gainera, pertsonentzat edo ondasunentzat arriskutsu den akatsik igarri gero, produktua merkatutik kentzea erabaki dai-teke, edo deuseztatu egingo dela bermatzeko beste neurri batzuk hartzea.

4.- Aurreko puntuaren zehazturik dauden neurri horiek hartu baino lehenago, interesatuari entzun beharko zaio; arriskua berehalakoa bada, ordea, gero entzungo zaio. Nolanahi ere, neurri hauek hartzeak ez du esan nahi jarri beharreko zehapenik jarriko ez denik eta lan arloko legedian zehaztutako neurririk hartuko ez denik.

III. KAPITULUA INDUSTRIAKO SEGURTASUNA

7. artikulua.- Industriako segurtasunaren xedea.

Industriako segurtasuna nahitaezko xedapen-sistema bat da, eta bi helburu ditu: arriskuei aurrea hartzea eta

3.- En los términos que reglamentariamente se establezcan, deberán constar en el Registro de Establecimientos Industriales, como mínimo, los datos generales de las empresas, establecimientos industriales, empresas de servicios industriales y de los agentes colaboradores previstos en el artículo 14 de la presente ley.

4.- Así mismo, la Administración podrá recabar los datos específicos que resulten necesarios para acreditar la dimensión, tales como capacidad productiva, consumo energético, medios materiales y humanos u otros indicadores descriptivos de la actividad industrial, respetando las normas sobre confidencialidad aplicables a cada caso.

5.- El procedimiento de inscripción se establecerá de acuerdo con los principios de celeridad, agilidad administrativa y mínimo coste para los sectores industriales objeto de inscripción.

6.- El registro es público. En las disposiciones de desarrollo de la presente ley se establecerán los mecanismos de acceso al registro y de difusión de los datos inscritos, así como las normas necesarias para garantizar la confidencialidad de los datos protegidos por secreto industrial o normas aplicables en cada caso.

Artículo 6.- Comercialización de productos industriales.

1.- Se reconoce la libertad de comercialización de aparatos, equipos o productos industriales, sin más requisitos o limitaciones que las derivadas de los procesos de certificación o declaración de conformidad, cuando existan normas que así lo establezcan.

2.- El departamento competente en materia de industria promoverá planes y campañas de comprobación, mediante muestreo, del cumplimiento de las condiciones reglamentarias de seguridad de los productos industriales.

3.- Cuando se compruebe que determinados productos industriales incumplen las condiciones reglamentarias de seguridad, se ordenará la corrección de los defectos detectados en el plazo que se determine. Si además se aprecian defectos o deficiencias que impliquen un riesgo de daños a las personas o a los bienes, se podrá acordar su retirada del mercado u otras medidas que garanticen su destrucción.

4.- Las medidas previstas en el punto anterior se adoptarán previa audiencia al interesado, salvo en el caso de peligro inminente, en cuyo caso la audiencia será posterior. Estas medidas se entenderán sin perjuicio de las sanciones que sean procedentes y de las medidas previstas en la legislación laboral.

CAPÍTULO III SEGURIDAD INDUSTRIAL

Artículo 7.- Objeto de la seguridad industrial.

La seguridad industrial es el sistema de disposiciones obligatorias que tiene por objeto la prevención y li-

muga jartzea, batetik, eta, bestetik, istripuen aurkako babesia, istripu horiek pertsona, ondasun edo inguru-menari kalte egiteko modukoak badira eta industria-jarduerak sortuak badira, edo instalazioen edo ekipoen erabilerak, funtzionamenduak eta mantentzeak sortuak, edo industriako produktuak ekoiztearen, erabiltzearen edo kontsumitzearen, biltegiratzearen edo zakarretara botatzearren ondorioz sortuak.

8. artikulua.- Industria Administrazioa.

1.– Lege honetan jasotako ondorioetarako, hau da Industria Administrazioa: lege honetako 4. artikuluko 1. puntuaren jartzen duenaren arabera, industriako eskumenik duten –bereziki, industriako segurtasunari eta kalitateari dagokienez– eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko diren erakunde guztiak.

2.– Industria Administrazioaren ardura izango da industriako segurtasun-sistema ondo dabilen zaintzea, sistema orokorki harturik. Horretarako, industriako instalazioak, tresnak, ekipoak eta produktuak ondo ote dabiltsan ikuskatu beharko du, tartean diren eragileei eta instalazioen jabeei dauzkaten betebeharra betearaziz.

3.– Industria Administrazioaren ardura izango da industriako instalazioak, tresnak, ekipoak eta produktuak teknikoki egokiak ote diren ikuskatzea, hurrengo artikuluetan zehazturik dagoen moduan. Horrek ez du esan nahi onarpen teknikoa ematen dienik.

9. artikulua.- Industriako instalazioen baimenetarako eta funtzionamendurako araubide orokorra.

1.– Industriako edozein tresna, producto edo instalazioen funtzionamendurako –lege honen aplikazio-eremuko tresna, producto eta instalazioei dagokienez betiere–, indarrean dauden legeek hala agintzen dute-nean bakarrik beharko da administrazio-baimena.

2.– Aurreko puntuko kasuaz landa, industriako segurtasun-arauen pean diren instalazioen, tresnen, ekipoen edo produktuen funtzionamendurako, arau horietako segurtasuneko eskakizun eta baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatu beharko da, besterik ez, dagokion organoan.

3.– Segurtasun-baldintzen esparruari dagokionez, zenbait instalazio, tresna, ekipo edo produktuk, nahiz eta, beren diseinuagatik, zertarakoagatik, dauden tokigatik edo beste edozerengatik –kasuan kasuko gorabehera behar bezala egiaztatu beharko da–, indarrean dauden betebehar teknikoak ez bete, administrazio-baimen berezia lortu ahal izango dute, baldin eta interesatuak egiaztatzen badu beste neurri batzuk hartu dituela edo beste eskakizun batzuk betetzen dituela eta, azkenean, balio bereko segurtasun-maila lortu duela.

mitación de riesgos, así como la protección contra accidentes capaces de producir daños a las personas, a los bienes o al medio ambiente derivados de la actividad industrial o de la utilización, funcionamiento y mantenimiento de las instalaciones o equipos y de la producción, uso o consumo, almacenamiento o desecho de los productos industriales.

Artículo 8.– Administración industrial.

1.– A los efectos previstos en la presente ley, se considera administración industrial todos aquellos órganos dependientes de la Administración de la Comunidad Autónoma con competencias en materia de industria y, especialmente, en las áreas de seguridad y calidad industrial, de acuerdo con lo establecido en el punto 1 del artículo 4 de la presente ley.

2.– La administración industrial velará por el funcionamiento del sistema de seguridad industrial globalmente considerado. A tal fin, supervisará el adecuado funcionamiento de las instalaciones, aparatos, equipos y productos industriales, mediante la exigencia a los agentes intervenientes y a los titulares de las instalaciones del cumplimiento de sus respectivas obligaciones.

3.– La administración industrial supervisará la idoneidad técnica de las instalaciones, aparatos, equipos y productos industriales, en los términos previstos en los artículos siguientes, sin que ello suponga la aprobación técnica de los mismos.

Artículo 9.– Régimen general de autorización y funcionamiento de las instalaciones industriales.

